

## XXI. mendearen alpinismoa

**G**AI hau orain dela egun gutxi sortu zen "Mendia eta abentura" obraren lehen bi liburukien aurkezpenean, Miramar jauregian. Gau hartan oso erreza zen galderak planteiatzea; giroa majikoa zen nolabait. Paradoxazko mundu bat bizi genuen: maiatza zen baina elurra ari zen errepidean Urkiola zeharkatzen eta orain enbatak La Concha astintzen zuen. Eta han, aurkezpenean, autoreen eta protagonisten eritzia eta irazkinak garatzen ziren bitartean, bapatean, telefonoak zuzenean jarri gintuen Dhaulagiriko oinarri-kanpamenduarrekin, eta hizketan egin ahal izan genuen Juanito Oiarzabal eta Mari Abregorekin, beren lo-sakuetan sarturik egonik, mendi hartatik alde egitera behartzen zituen eguraldi txarra dela eta protesta egiten zutelarik. Zerbait geroxeago, Shebe Peñak zehatz-mehatz kontatzen zigun, betiko mainaz, nola joaten ziren mendira "zoro" aintzindari haiek orain 70 urte. Iragana eta geroa nahastu egiten ziren.

Etorkizun hurbilean, hastear dagoen mendean alpinismoa nolakoa izango deneko debata sortu zen, zeren azken hamarkaden bilakaera-eritimoa hain arina da ezen aurrikusteak epe laburrera soilik egin bait daitezke. Fikzio-zientziako ariketa izango litzateke munduaren erabileraren dimentsioak aldatuko dituzten indarrak suposatu dezaketena eztabaidatzea: adibidez, luraren klimaren aldaketak, aberastasuna gutxi batzuren eskuetan geratzea, hirugarren munduaren leherketa demografikoa, edo baita alpinismoa beste planeta batzutan egin ahal izateko probabilitatea ere (gogoratzen dut Urkizuk bidali zuen umorezko ukitu hura, astronauta mendizaleari buruzkoa).

Baina 2000. urtearen Gabonzahar esanguratsuen hurbiltasunak, egutegiaren orri handia pasatzean, balantzea egitera gonbidatzen du, ohizko eztabaidagaien aurrean jarrera hartzea. Adibidez:

¿Aurrerakuntza teknikoek (ad.: mugigarria, GPSa, materiale berriak), jokatze eratan aldaketak sorteraziko dituztenez gero, "gogo alpinoa" desagertu eraziko ote dute?

¿Emakumezkoak mendizaletasunean parte hartzea ailegatuko ote dira, ez testigantza hutsean soilik edo salbuespenezko kasutan, baizik eta arlo, antolamendu eta maila guztietan sartuz eskubide-berdintasunean?

¿Sponsorren presiogatik eragin negatiboak gailenduko ote dira alpinismoaren eliteen balio objektiboen gainetik?

¿Bizirik jarraituko ote dute, eta nolako betekizunekin, Mendi-Federakundeak eta beste estamendu ofialezen moduko egitura antolatzaileek?

Hori baino grabeagoa ¿Gailenduko ote da mendizaletasuna jabetza pribatuaren eraginean gainetik alde batetik, eta mendiaren industrializazioaren gainetik bestaldekik (pistak, eraikuntzak, errota, eta abar)?

Erantzunak ez dira ezezkoak zeren benetako alpinismoak iraun ahal izateko aukerak aurkitzea lortuko duten bi indar daudelako esperantza bait dugu mendizaleengan: - abenturarako gogoia. Munduaren sekretuak deskubritzeko grinak jarraituko du bide berriak zabaltzen, zeren hurbilean esploratzeko gero eta gutxiago egon arren arinago joan bait daiteke urrutia. - ekologia balio kultural bezala hedatua. Naturazko geratzen zaigunaren defentsarako konbentzimendua. Honen modernoa ematen duen ardura honek zera esatera behartu zuen: "... Una cosa deseo ver acabada, y es lo que toca a la conservación de los montes y aumento de ellos, que es mucho menester, y creo que andan muy al cabo. Temo que los que vinieren después de nosotros han de tener mucha queja de que se los dejemos consumidos..." (Felipe II.aren gutuna Castillako Kontseiluaren presidenteari, 1582).

¿Nik zer dakit nola afektatuko duen honek guztionean etorkizuneko alpinismoa! Baina etorkizunari gagozkiolarik, beste galdera zehatzago honek kezkatzen nau: ¿Noiz arte jarraituko ote dugu betikook Pyrenaica egiten?

## El alpinismo del siglo XXI

**E**L tema surgió hace unos días en la presentación de los dos primeros tomos de "Montaña y Aventura", en el Palacio Miramar. Aquella noche era muy fácil plantearse preguntas; el ambiente era un poco mágico. Se vivía un mundo de paradojas: era mayo pero estaba nevando en la carretera al atravesar Urkiola y ahora la galerna sacudía La Concha. Y allí, en la presentación, mientras se iban desgranando las opiniones y comentarios de autores y protagonistas, de repente, el teléfono nos puso en directo con el Campo Base del Dhaulagiri y pudimos charlar con Juanito Oiarzabal y Mari Abrego, metidos en sus sacos de dormir, protestando por el mal tiempo que les expulsaba del monte. Un poco después, Shebe Peña nos relataba minuciosamente, con el mimo de siempre, como iban al monte aquellos "locos" pioneros hace 70 años. Se entremezclaban el mañana y el ayer.

Se planteó el debate de cómo será el alpinismo en el siglo que empieza, en un futuro muy próximo, porque es tan rápido el ritmo de evolución en las últimas décadas, que ya sólo es posible hacer previsiones a corto plazo. Sería un ejercicio de ciencia ficción cuestionarse lo que pueden suponer las fuerzas que modificarán las dimensiones de utilización del mundo: por ejemplo, los cambios en el clima de la tierra, la concentración de la riqueza en pocas manos, la explosión demográfica del tercer mundo, o hasta la alternativa de hacer alpinismo en otros planetas (recuerdo aquel toque de humor que envió Urquiza, a cuenta del astronauta montañero).

Pero la proximidad de la Nochevieja emblemática del 2000, al pasar la página grande del calendario, invita a hacer balance, a discutir proyectos, a posicionarse ante los temas habituales de discusión. Por ejemplo:

¿Resultará que los adelantos técnicos (vg. el móvil, el GPS, los nuevos materiales), al imponer de tal forma cambios en los modos de actuar, acabarán por hacer desaparecer el "espíritu alpino"?

¿Llegarán las mujeres a participar en el montañismo, no de forma testimonial y como excepción, sino entrando en igualdad de condiciones en todos los terrenos, organizaciones y niveles?

¿Vencerán los efectos negativos de la presión de los sponsors sobre los valores objetivos de las élites del alpinismo?

¿Sobrevivirán, y con qué funciones, las estructuras organizativas como las Federaciones de Montaña y otros estamentos oficiales?

Más grave que eso ¿Subsistirá el montañismo a los efectos de la propiedad privada por una parte y de la industrialización del monte (pistas, construcciones, molinos, etc) por otra?

Las respuestas no son negativas porque nos anima la esperanza de que hay dos fuerzas en los montañeros que conseguirán encontrar oportunidades para que permanezca el alpinismo del bueno: - el espíritu de aventura. El afán por descubrir los secretos del mundo seguirá abriendo nuevos caminos, porque cada vez queda menos por explorar cerca pero se puede ir antes mucho más lejos. - la ecología extendida como valor cultural. La convicción de la defensa de lo que nos queda de natural. Esa preocupación, tan moderna, que llevó a decir: "... Una cosa deseo ver acabada, y es lo que toca a la conservación de los montes y aumento de ellos, que es mucho menester, y creo que andan muy al cabo. Temo que los que vinieren después de nosotros han de tener mucha queja de que se los dejemos consumidos..." (carta de Felipe II al presidente del Consejo de Castilla, 1582).

¿Yo qué sé cómo afectará todo esto al alpinismo del futuro! Pero hablando del futuro, me intriga otra pregunta mucho más concreta: ¿Hasta cuando seguiremos el mismo equipo haciendo Pyrenaica?

Txomin Uriarte